


INFLAZIOA

Otsailean KPIa lau hamarren murriztu zen

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIa %3,1era jaitsi zen otsailean, eta, beraz, azken hilabeteetan erakutsi zuen apaltzeko bidera itzuli da, urtarrileko gorakada puntualaren ondoren. Bilakaera horren arrazoi nagusia elektrizitatearen prezioa jaitsi izana eta elikagaien prezioa pixkanaka egonkortu izana da, bi urteko igoeren ondoren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2024ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,1	3,1
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,9	3,3
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	5,7	0,9
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,8	0,4
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	4,2	2,0
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	-0,8	-0,2
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	5,3	0,3
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-5,7	-0,5

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Elektrizitatearen prezioaren bilakaerak ekarpen nabarmena izan zuen inflazioaren neurritasunean, urte arteko aldakuntza tasa $-11,5\%$ era jaitsi baitzen. Gas naturalaren kotizazioaren jaitsierak eta karbono dioxidoa isurtzeko eskubideenak, eta sorkuntza berriztagarriaren sendotasunak, merkatze hori ahalbidetu zuten. Era berean, elikagaien prezioak azken hilabete honetan 2022ko otsailetik, hau da, Ukrainako gerra piztu

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



aurretik, igoerarik baxuena jaso du orain, $5,8\%$ baldintza klimatologiko hobeei eta nekazaritza kostuen jaitsierari esker. Elektrizitatearen prezioaren jaitsiera horren ondorioz, etxebizitza taldea izan zen urte arteko aldakuntza tasa negatiboak izan zituen talde bakarra ($-3,5\%$) eta aurreko hilabetearen aldean gehien murriztu zena, bost puntu jaitsiz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko otsaila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,1	2,8	2,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,8	5,3	3,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,7	4,7	6,6
Jantziak eta oinetakoak	1,4	1,9	2,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,5	-2,7	-0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,4	1,4	1,1
Osasuna	2,8	2,2	2,9
Garraioa	3,5	2,4	1,6
Komunikazioak	0,4	0,4	-1,6
Aisia eta kultura	3,0	2,8	3,1
Hezkuntza	2,2	2,8	4,0
Jatetxeak eta hotelak	5,1	5,5	5,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,5	3,3	4,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.